



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2014ko urriaren 22ko Aginduaren (2014ko urriaren 28ko 205 zk.ko EHAA) kontrako administrazioarekiko auzi-errekurtsoari buruzko informazio-oharra.

Estatuko Administrazioak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2014ko urriaren 22ko Aginduaren kontra (2014ko urriaren 28ko 205. zk.ko EHAAn argitara emandakoa), 2014-2015eko ikasturtean unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako deialdiaren kontra hain zuzen.

Errekurtso horri buruzko administrazio-espeditentea (41/2015 zk.ko ohiko prozedura) bidaltzeko errekerimendua egin dio Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak Eusko Jaurlaritzari. Hori dela-eta, deialdi honetan parte hartzeko interesa dutenak deitu behar ditu, derrigorrean, Eusko Jaurlaritzak, horrela nahi izanez gero haien interesak defenditzeko prozedura honetan demandatu gisa agertu ahal izateko. Horretarako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendariak Ebazpena eman du 2015eko martxoaren 6an, administrazio-espeditentea bidaltzeari eta prozeduran interesatuta dauden pertsonak deitzeari buruzkoa (EHAA: 2015eko martxoaren 18koa, asteazkena).

Prozeduran agertzeari eta agindu honen arabera aurkeztutako eskaerak tramitatzeari buruz sor daitezkeen zalantzei dagokienez, puntu hauek zehaztu behar dira:

1. Eusko Jaurlaritzako zerbitzu juridikoek beren gain hartzen dute deialdi-aginduaren legezketasuna defendatzeko ardura.
2. Edonola ere, errekurritutako deialdian interesatuta dagoen edozein pertsonatu daiteke errekurtsoan; prokuradore bat izango da haren ordezkaria eta abokatuaren laguntza izango du, urtarrilaren 10eko 1/1996 Legeak, doako laguntza juridikoarenak, xedatutakoaren arabera doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea ezagutzen zaion kasuetan izan ezik; laguntza horrek zenbait kostu ekarriko ditu.
Pertsonatzeko epea bederatzir lanegunekoa da, aipatutako ebazpena argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, eta, horregatik, datorren 2015eko apirilaren 1a, asteazken, izango da azken eguna.
Deialdi-aginduaren legezketasuna defendatuko dute Eusko Jaurlaritzako zerbitzu juridikoek eta, horregatik, ez da derrigorrezkoa prozeduran norbera agertzea, norberak hartu beharreko erabakia den arren. Prozeduran agertzeak abokatuaren eta prokuradorearen laguntzarekin joan behar izatea eta, kasu askotan, zenbait kostu norberaren gain hartzea dakartza.
3. Errekurritutako aginduaren ezaugarriak kontuan hartuta -unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako deialdia izatea-, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak eskaerak 2014ko urriaren 22ko Aginduan zehaztutako terminoetan tramitatzen jarraituko du.